



2013KO EKAINAREN 7KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko ekainaren zazpian, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2013ko maiatzaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 30 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HOGEITA HAMAR MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMASEI EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (30.656,17,-)tako onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 13-11-02 zbk.dun esped.: bere osasun egoerak hobera egin duela eta, etxeko laguntza zerbitzua murriztea, astean 11 orduetatik 5 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-019 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako, ekaineko hilabeteetan 43,94 € ematea eta alokairuko gastuetarako, ekaineko hilabeteetan soilik baita ere, 237,50 €ko diru laguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %95a da.

- 12-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu eta alokairu gastuetarako laguntzetatik baja ematea, betebeharreko baldintzak ez betetzeagatik.



IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak, udala administrari plaza bat betetzeko aurrera eramaten ari den hautaketa prozesua nola dagoenaren berri ematen du.

Estensoro zinegotziak, kiroldegiko kanpoko igerilekua egiteko lurren derrigorrezko jabetza kentzearen aurkako auzia zertan den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio esanen oraingoz auzia amaitu gabe dagoela, Bilboko auzitegiak emandako sententzian errekurritzaileak eskatutakoari ezezkoa eman diola baina sententzia oraindik ez dela irmoa.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bi minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]